



ARARTEKOAREN EBAZPENA, 2006ko ABUZTUAREN 25ekoa, ELKARTE BATEK DONOSTIAKO UDALEKO UDALBATZAREN BATZORDE IRAUNKORRETAN PARTE HARTU AHAL IZATEKO EGINIKO ESKAERARAKO.

- **Aurrekariak**

Kexa elkarte batek adierazi zuen, eta horren bidez desadostasunean agertu ziren Donostiako Udalak emaniko ezezkoarekin Udalbatzaren batzorde iraunkorretan parte hartzeko, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 126.1.a) artikuluekin bat etorritz.

- **Gogoetak**

Donostiako Udalak helarazitako informazioaren arabera, existitzen diren bost batzorde iraunkorretako lehendakariak idazki ezberdinak jaso zituzten 2005eko hasieratik, Elkartearen ordezkariak Udalbatzaren batzordeetan egoteko eskaera eginez. Idazkari orokorrak emaniko txosten juridikoan oinarrituz, Udalak azpimarratu zuen eskaerei ezezkoa emateko arrazoia –lehendakariaren esanetan– Udalbatzaren Araudi Organikoaren 126.1.a) artikuluan exijituriko gertakari edo baldintzak ez agertzea zela.

Erreklamazioa adierazi zuen Elkartearen desadostasunean agertu zen batzordeetara joateko eskariari emaniko ezezkoarekin, eta baita Udaleko idazkari orokorrak eginiko txostenarekin ere. Zehazki, ez zitzairen iruditu zuzenbideari egokitzen zitzaionik, alegia, ez zuten uste bileretara joatearen interpretazioa –lehendakariaren gonbidapena eskuratzen zuten kasuan– haiek bertaratzeko egokitzen jotzen zen gaira mugatu behar zenik, bilera osora beharrean.

Aipatutako artikulua honakoa dio: *“Lehendakariaren gonbidapena izanda, haren ekimenez edo Batzordeko kide batenarenez, Batzordearekin zerikusirik ez duten pertsonak bertaratu ahal izango dira, haiek joatea egokitzen jotzen delako jorratzen den gaian”.*

Gure ustez, lehendakariak gonbidapena egitea erabaki behar du pertsona bat bilerara joateko, bere ekimen propioz nahiz batzordeko beste kideren batenaz, eta horren bidez gonbidatua batzordera joan ahal izango da. Hori dela-eta, lehendakaria da bilera jakin batera gonbidatzeko eskumena duena.

Zentzu horretan adierazi genuen, ez zitzaigula egokia iruditzen Elkarteak eginiko interpretazioa. Haien arabera, batzordeko gairen batean interesa badute, bilerara bertaratzeko eskaera luzatzen diote lehendakariari eta hark gonbidatu egin behar



ditu. Interpretazio horren arabera, Elkartek bere interesa agertuz gero, lehendakaria haiek gonbidatzera behartuta dago. Artikuluaren hitzez hitzeko irakurketatik, ordea, ez zen posible interpretazio hori egitea.

Bestalde, nabarmendu genuen pertsona bat bertaratzea gaia jorratzen zen uneari mugatu behar zitzaioela, haren presentzia egokitzen joen gaia jorratzeko uneari hain zuzen, eta noski, artikuluan ezarritakoak ez zuen aukerarik ematen interpretatzeko pertsona batek bilera guztira joateko eskubidea zuela.

Azkenik, gure gogoetetan adierazi genuen, hiritarrek gai publikoetan parte hartzeko duten eskubidea toki erregimeneko araudian zehazten dela. Zehazki, toki araubideko oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70 bis artikulua berriak, toki gobernua modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazi zuena, honakoa dio 1. atalean:

“Udalek izaera organikoko prozedura eta organo egokiko neurriak ezarri eta arautu beharko dituzte, auzotarrek modu eraginkorrean parte har dezaten udalerriko bizitza publikoan, bai udalerriaren esparruan orokorrean, bai udal barruti ezberdinenean, horrelako lurralde banaketak existitzen diren kasuan”.

Testuinguru orokor horretan, udalari dagokio parte-hartzearen antolaketa zehaztea, bere jardueraren berri zabalena ematea errazteko bideak jartzea bezalaxe. TAOLaren 70. artikulua oso modu oinarrizkoan arautzen du eskubide hori (akordioen kopiak lortzea, akordioak argitaratzea,...), eta Udalen eskuetan uzten du hori guztia arautzeko modu zehatza, antolaketa propioa gauzatzeko dituen eskumenekin bat etorritik.

- **Ebazpena**

Horregatik guztiagatik, amaitutzat jo genuen gure esku-hartzea, Udalbatzaren batzordeen bileretan parte hartzeko Udalak Elkarteari emaniko ezezkoa Udalbatzaren Araudi Organikoaren 126.1.a) artikuluekin bat zetorrelako.